

21. Newsletterra Urtarrila 2026

Enfokatur Euskadiko Turismo Behatokiak Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoaren koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du. Txosten honek **2025eko datu metatuak, urriko eta azaroko emaitzak** eta **turismo-ostatu arautu guztiei** buruzko informazioa jasotzen du.

2025EKO URTARRILA-AZAROA METATUAK



PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA (%) * (VS. 2024)

%41,40

%42,10

Hotelak	%1,2	↑	Vitoria-Gasteiz	%0,7	↑
Nekazal turismoa	%6,3	↑	Bilbao	%2,1	↑
Kanpinak	%3,8	↓	Donostia	%0,6	↓
Apartamentu turistikoak	%2,5	↓	Euskal Kostaldea	%1	↑
Aterpebe turistikoak	%1,6	↑	Mendi eta haranak	%3,9	↑
			Arabako Errioxa	%5,2	↓

ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

60.166
(+%3,8)

Hotelak	%3	↑	Vitoria-Gasteiz	%0,9	↑
Nekazal turismoa	%1,1	↓	Bilbao	%6,2	↑
Kanpinak	%2,9	↑	Donostia	%0,3	↑
Apartamentu turistikoak	%16,5	↑	Euskal Kostaldea	%1,8	↑
Aterpebe turistikoak	%2,6	↑	Mendi eta haranak	%2,2	↑
			Arabako Errioxa	%1,3	↑

2025 urteak, 2024ko aldi beraren aldean, **balantze positiboa izan du adierazle nagusi guztietan**: +% 3,8 (60.166) eguneko eskaintako plazetan; +% 4,2 (4.649.089) turisten sarreretan; +% 3,7 (9.843.873) gaualdietan; eta +% 1,7 (% 42,10) plazen okupazio-mailan.

Ostatu-tipologiei dagokienez, **kanpinak behera egin dute sarreretan, gaualdietan eta plazen okupazio-mailan**; turismo-apartamentuek ere behera egin dute plazen okupazioan, gainerako **ostatu-moten emaitza positiboen aldean**.

Helmuga guztiek handitu dute egunean eskaintako plazen kopurua, 2024ko aldi berarekin alderatuta. **Vitoria-Gasteizek behera egin du** turisten sarreretan. **Donostiak ere behera egin du sarreretan, gaualdietan eta plazen okupazio-mailan**. Gainerako helmugek, aldiz, emaitza positiboak izan dituzte **ostatu-eskariaren adierazle** guztietan.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO URTARRILA-AZAROA METATUA

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%3,1 ↑	%2,3 ↑
Euskadi	%3,1 ↑	%0,6 ↑
Frantzia	%3,4 ↓	%2,9 ↓
Katalunia	%1,5 ↓	%2 ↓
Estatu Batuak	%14,1 ↑	%17,4 ↑
Erresuma Batua	%20,8 ↑	%18,3 ↑
Alemania	%7,8 ↑	%11,6 ↑
Gaztela eta Leon	%0,6 ↑	%0,7 ↓
Andaluzia	%0,2 ↑	%1,5 ↑
Valentziako Erk.	%5,3 ↑	%3,2 ↑

Estatuko merkatutik datozen turisten **presentzia apur bat handiagoa da (% 50,7)**; merkatu horrek **hazkunde txikiagoa izan du (+% 2,8)** 2024ko aldi beraren aldean, **nazioarteko merkatuaren % 5,7**koigoerarekin alderatuta.

10 merkatu igorle nagusien artean nazioarteko lau daude: Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Alemania. Beherakadak Frantziatik eta Kataluniatik datozenek soilik izan dituzte.

Sailkapenaren buruan hauek daude, hurrenkera honetan: **Madrilgo Erkidegoa (% 11,9), barne-merkatua -Euskadi- (% 9,6), Frantzia (% 9), Katalunia (% 7,4) eta Ameriketako Estatu Batuak (% 4,8)**.

URRIA 2025



PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA (%) * (VS. 2024)

%39,10

%42,60

Hotelak	%3,3	↑	Vitoria-Gasteiz	%5,9	↑
Nekazal turismoa	%15,7	↑	Bilbao	%6	↑
Kanpinak	%6,2	↑	Donostia	%2,1	↑
Apartamentu turistikoak	%3,9	↑	Euskal Kostaldea	%0,6	↓
Aterpebe turistikoak	%18,7	↑	Mendi eta haranak	%6,9	↑
			Arabako Errioxa	%14,2	↑

ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

61.536
(+%2,4)

Hotelak	%1,6	↑	Vitoria-Gasteiz	%1	↑
Nekazal turismoa	%0,5	↓	Bilbao	%3,9	↑
Kanpinak	%0,3	↓	Donostia	%1,9	↓
Apartamentu turistikoak	%14,9	↑	Euskal Kostaldea	%4,5	↑
Aterpebe turistikoak	%3,2	↑	Mendi eta haranak	%0,4	↑
			Arabako Errioxa	%1,1	↑

2025eko urrian, 2024ko hilabete beraren aldean, % **2,4 plaza gehiago eskaini dira eguneko** (61.536). **Ostatu-eskariaren adierazle guztiek gora egin dute: sarreretan, +% 7,5 (455.381); gaualdietan, +% 7,1 (932.665); eta plazen okupazio-mailan, +% 9 (% 42,60)**.

Ostatu-tipologiei dagokienez, **eskari-adierazleek balio positiboak izan dituzte**, gaualdietan **behera egin duten kanpinetan** izan ezik. Plaza-eskaintzari dagokionez, **landa-ostatuek eta kanpinak eguneko plaza gutxiago eskaini dituzte**.

Vitoria-Gasteizek eta Donostiak behera egin dute sarreretan, eta Euskal Kostaldeak ere jaitsiera izan du **plazen okupazio-mailan**, 2024ko urriaren aldean. Eskaintzari dagokionez, **Donostiak behera egin du egunean eskaintako plazen kopuruan**.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO URRIA

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%3,9 ↑	%2 ↑
Euskadi	%7,8 ↑	%3,5 ↑
Frantzia	%7,9 ↓	%4,8 ↓
Katalunia	%6,3 ↑	%4,4 ↑
Estatu Batuak	%22,2 ↑	%28,7 ↑
Erresuma batua	%19,5 ↑	%20,2 ↑
Alemania	%3,1 ↑	%7,1 ↑
Andaluzia	%4,3 ↓	%2,4 ↓
Gaztela eta Leon	%0,3 ↓	%6,2 ↓
Valentziako Erk.	%18,9 ↑	%12 ↑

Nazioarteko merkatuak estatukoak baino **kuota apur bat handiagoa** du (lehenak % 50,3, bigarrenak % 49,7). **Nazioarteko merkatua % 5,9 hazi da** 2024ko urriaren aldean; **estatuko merkatua ere % 3,2 igo da**.

Urriko hamar merkatu igorle nagusien artean, **gehienek hazkundea izan dute. Frantziak, Andaluziak eta Gaztela eta Leonek soilik izan dituzte jaitsierak**. Urrian, **nazioarteko bost merkatu igorle daude** hamar nagusien artean, hurrenkera honetan: **Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Alemania**.

Sailkapenaren buruan hauek daude, hurrenkera honetan: **Madrilgo Erkidegoa (% 11,8), barne-merkatua (Euskadi) (% 9,3), Frantzia (% 8,3), Katalunia (% 6,8) eta Ameriketako Estatu Batuak (% 6)**.

2025EKO AZAROA



PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA (%) * (VS. 2024)

%31,6

%30,9

Hotelak	%1	↓	Vitoria-Gasteiz	%3,3	↑
Nekazal turismoa	%10,2	↓	Bilbao	%0,2	↑
Kanpinak	%6,5	↓	Donostia	%3	↓
Apartamentu turistikoak	%3,7	↓	Euskal Kostaldea	%9,3	↓
Aterpebe turistikoak	%3,2	↑	Mendi eta haranak	%2,3	↓
			Arabako Errioxa	%3,5	↓

ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

57.940
(+%2,3)

Hotelak	%1,3	↑	Vitoria-Gasteiz	%1	↑
Nekazal turismoa	%0,6	↓	Bilbao	%2,8	↑
Kanpinak	%0	=	Donostia	%2,3	↓
Apartamentu turistikoak	%11,6	↑	Euskal Kostaldea	%3,8	↑
Aterpebe turistikoak	%7,1	↑	Mendi eta haranak	%1,4	↑
			Arabako Errioxa	%1,6	↓

Azaroan, 2024ko hilabete beraren aldean, % **2,3ko hazkundea izan da** egunean **eskaintako plazetan** (57.940), eta % **0,5eko sarreretan** (324.307). Gaualdiek, ordea, % **0,3 egin dute behera** (667.718), eta plazen **okupazio-maila ere % 2,2 jaitsi da** (% 30,90).

Plaza-eskaintzak hazkunde orokorra izan du establezimendu turistikoetan, % **0,6 jaitsi diren** landa-ostatuetan izan ezik. **Ostatu-eskariaren adierazleei dagokienez, landa-ostatuek eta kanpinak** beherakadarekin itxi dute; turismo-apartamentuek, berriz, behera egin dute **plazen okupazio-mailan**.

Helmuga gehienek eguneko plaza-eskaintza handitu dute, Donostiak eta Arabako Errioxak izan dituzten jaitsierak izan ezik. Era berean, Donostiak eta Arabako Errioxak behera egin dute ostatu-eskariaren adierazle guztietan. **Euskadiko barnealdeak** beherakada izan du gaualdietan eta plazen okupazio-mailan; **Euskal Kostaldeak, berriz, plazen okupazioan soilik**.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO AZAROA

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%8,1 ↓	%6,9 ↓
Euskadi	%4,8 ↓	%16,4 ↓
Katalunia	%5,6 ↓	%7,9 ↓
Frantzia	%5,4 ↓	%3,3 ↓
Gaztela eta Leon	%5,1 ↑	%4 ↓
Andaluzia	%6,3 ↓	%3,5 ↓
Valentziako Erk.	%5,1 ↓	%1,7 ↑
Estatu Batuak	%16,3 ↑	%13,3 ↑
Nafarroa	%8,8 ↓	%11 ↓
Asturias	%40,3 ↑	%31,5 ↑

Estatuko merkatuak nazioartekoak baino **kuota handiagoa** du (% 64 lehenak, bigarrenaren % 36ren aldean); **nazioartekoak, ordea, % 3,1eko hazkundea izan du**, eta **estatukoak % 0,9 egin du behera**.

Hamar merkatu igorle nagusien artean **nazioarteko bi daude: Frantzia eta Ameriketako Estatu Batuak**. **Merkatu gehienak urte arteko beherakadak izan dituzte** sarreretan zein gaualdietan, **Valentziako Erkidegoan, Ameriketako Estatu Batuetan eta Asturiasen izan ezik**.

Sailkapenaren buruan hauek daude, hurrenez hurren: **Madrilgo Erkidegoa (% 14,1), barne-merkatua (Euskadi) (% 12,3), Katalunia (% 8,7), Frantzia (% 8,1) eta Gaztela eta Leon (% 4,2)**.